

Gipuzkoako herrietan irakurzaletasuna bultzatuko du Aldundiak

Ilustrazio topaketak eta haur eta gazte literaturako azterketa beka antolatuko ditu

Donostia. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere kultura sustapenaren egitasmo eta programaren barruan, betidanik jorratu izan du irakurzaletasuna piztu, indartu eta zabaltzeko ardura", azpimarratu zuen atzo Gipuzkoako Kultura eta Euskara diputatuak, María Jesús Aranburuk.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kultura komisioan egindako agerraldian, aipatutako helburuarekin Foru Aldundiak dituen programak zehaztu zituen eta, aldi berean, aurrera begira burutuko dituenak azaldu zituen. Horiek horrela, datorren ikasturteari begira, zenbait herrirekin akordio bat lortu nahi dute agente desberdinak inplikatur (eskola, gurasoak, udal liburutegia, udala bera...) irakurketa sustatzeko asmoz. Horretaz gain, bidai literarioaren eta deserriaren inguruko erakusketa interaktibo bat sortu eta paratuko du Galtzagorri elkarteak aurten Koldo Mitxelena Kulturunean.

Ilustrazio topaketak

Gainera, gazte, haur eta profesionalentzat ilustrazio topaketak antolatzea aurreikusi dute.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak haur eta gazte literaturako azterketa beka bultzatuko du ikerlariak esparru desberdinak iker ditzaten: zein liburu falta zaizkigun, zein genero, zein egile edo zein gai, besteak beste.

"Honek guztiak elkarlana izango du oinarri eta erakunde desberdinen parte hartzea bere balio nabarmenena izango da", azpimarratu zuen Aranburuk.